ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2018ko urtarrila 16**· 16 de enero de 2018

**LEHENDAKARIA** · Presidenta
Maria José Balier Orobio-Urrutia (EAJ-PNV)

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Iker Oceja Sobrón(EAJ/PNV)
Mª Soledad Juaristi Alberdi (EH Bildu)
Jon Andoni del Amo Castro (EH Bildu)
Jorge Varela Dorrio (SQ-2D)
Mauricio Garcia Martin (PSE-EE (PSOE)

**BERTARATU EZ DIRENAK** · Justifica ausencia
Francisco Garate Mintegui (PP)

**KUDEATZAILE** Gerente
José Manuel Rodríguez Carballo

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Garazi Arrizabalaga, responsable del Museo

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Ramón Sorarrain Tolosa

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**· Actuando por delegación de éste:
Inés Irigoras Ordorika

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Udaletxea/Ayuntamiento |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 17:45 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertzen dira:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**BAT.- AURREKO AKTA-ZIRRIBORROEN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARPENA**

2017ko azaroaren 14ko akta irakurri ondoren, aho batez, ontzat ematen da

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta de la sesión celebrada el día 14 de noviembre de 2017

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENI BURUZKO KONTU EMATEA**

Presidenteak ondorengo ebazpenen berri ematen du:

- 17/10/31 datarekin, 17/10 urriko faktura zerrendaren onarpen ebazpena
- 17/10/31 datarekin, urriko nominaren ordainketarentzako onarpen ebazpena
- 17/10/31 datarekin, 17/8 2016ko atzeratzeak ordaintzeko onarpen ebazpena
- Hurrengo ordainketa hauek onartu eta burutzea:
    - Bibliotekako arduradunentzako txamarrak
    - Bibliotekako ikastaroen publizitatea
    - Xabier Aranguenarentzako “El comic y su valor como instrumento para acercar la literatura a los jóvenes” ikastaroa
    - Txartelaren mantentzerako komisioa
- 17/11/30 datarekin, 17/11 azaroko fakturen zerrendaren onarpen ebazpena
- 17/11/30 datarekin, azaroko nominaren

**DOS.- CUENTA DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de aprobación de la relación de facturas 10/17 de octubre con fecha 31/10/17
- Resolución de aprobación del pago de la nómina del mes de octubre con fecha 31/10/17
- Resolución de aprobación del pago de los atrasos del 2016 con fecha 31/10/17
- Aprobar y hacer efectivos los siguientes pagos:
    - Chamarras para personal de la Biblioteca
    - Publicidad de cursos en la Biblioteca"
    - Curso "El comic y su valor como instrumento para acercar la literatura a los jóvenes" para Xabier Aranguena (Biblioteca)
    - Comisión por el mantenimiento de la tarjeta
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 11/17 de noviembre con fecha 30/11/17
- Resolución de aprobación del pago de la

ordainketarentzako onarpen ebazpena

- Hurrengo ordainketa hauek onartu eta burutzea:
  - SAKG-arentzako asistentzia teknikoaren esleitzearen AD-aren baliogabetzea
  - "Anual familiar" aldizkaria jasotzeko harpidetza
  - XV. mahai-ingururako mahai lehendakaria
- MC04/17 aurrekontu aldaketaren (habilitazioa) onarpen ebazpena 17/12/11 datarekin
- MC05/17 aurrekontu aldaketaren (habilitazioa) onarpen ebazpena 17/12/19 datarekin
- 17/12/31 datarekin, 17/12 azaroko fakturen zerrendaren onarpen ebazpena
- 17/12/31 datarekin, abenduko nominaren ordainketarentzako onarpen ebazpena
- Hurrengo ordainketa hauek onartu eta gauzatzea:
  - SAKG-n lunch-a azokan zehar
  - SAKG-an emankizuna
  - XV. mahai-inguruko mahai-lehendakaria
- MC06/17 aurrekontu aldaketaren (habilitazioa) onarpen ebazpena 17/12/31 datarekin

Jorge Varela jaunak berriz dio, ahal baldin bada erosketak Durangon bertan egin behar direla

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

nómina del mes de noviembre con fecha 30/11/17

- Aprobar y hacer efectivos los siguientes pagos:
  - Anulación del AD de la adjudicación de la asistencia técnica a SAKG
  - Suscripción a la revista "Anual familiar"
  - Presidenta Mesa del XV Coloquio
- Resolución de aprobación de la modificación presupuestaria (Habilitación) MC04/17 con fecha 11/12/17
- Resolución de aprobación de la modificación presupuestaria (Habilitación) MC05/17 con fecha 19/12/17
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 12/17 de diciembre con fecha 31/12/17
- Resolución de aprobación del pago de la nómina del mes de diciembre con fecha 31/12/17
- Aprobar y hacer efectivos los siguientes pagos:
  - Lunch durante la azoka en SAKG
  - Representación en SAKG
  - Presidenta Mesa del XV Coloquio
- Resolución de aprobación de la modificación presupuestaria (Habilitación) MC06/17 con fecha 31/12/17

Don Jorge Varela insiste en que sea prioritario realizar las compras, siempre que sea posible en Durango

**TRES.- INFORME DE GESTION**

Mª José Balier andereak bertaratutakoei galdetzen die ea kudeaketa txostenari buruz zalantza, galdera edo proposamenik duten.
Bertaratutako guztiek ados daudela adierazten dute.

Doña Mª José Balier pregunta a los/as presentes si tienen alguna duda, pregunta, sugerencia que hacer respecto al informe de gestión.
Todos/as presentes manifietan su conformidad con el informe

**LAU.- AINTZAT HARTZEKO GAIAK:**

- **Estibaliz Albizu anderearen telelana egiten jarraitzeko eskaera eta lizentziaren metaketa**

- **Ikerketa museologikoaren aurkezpena**

Mª José Balier andereak Estibaliz Albizu andereak, telelanarekin eta eskola egutegiko oporretan (Aste Santua, uda eta Gabonak) lizentziaren metaketarekin jarraitzeko aurkeztutako eskaera irakurtzen du.
Mª José Balier andereak 2017ko urtarrilaren 17an, Batzordeak bi eskaerak urte betez onartu zitueneko akordioa irakurtzen du.
Batzartutako guztiak ados daude Estibaliz Albizu andereari baiezko erantzuna ematearekin eta hileroko txostenak José Manuel Rodriguez jaunaren ordezkoari (ordezkapena gauzatzerakoan edo bestela Batzordeari) eskatuko diote.

Garazi Arrizabalaga andereak adierazten du, eskuragarritasuna eta segurtasuna ziurtatzeko eraberritze lanak aprobetxatuz, erakusketa aretoen berregituratze bat egongo dela. Bertaratutakoei, hurrengo Batzarrean, proposamenak, zalantzak eta gomendioak helaraztea eskatzen die.
Garazi Arrizabalaga andereak aurkeztutako txosten museografikoa, Inés Irigoras andereak e-mail bidez

**CUATRO.- ASUNTOS PARA LA TOMA EN CONSIDERACION:**

- **Solicitud de Doña Estibaliz Albizu para continuar con el teletrabajo y la acumulación de su licencia**
- **Presentación del estudio museológico**

Doña Mª José Balier da lectura a la solicitud presentada por Doña Estibaliz Albizu solicitando continuar con el teletrabajo y con la acumulación de su licencia en los períodos de vacaciones escolares: semana santa, verano y navidades.
Doña Mª José Balier da lectura al acuerdo tomado en la Junta del 17 de enero del 2017 donde se aceptaba ambas solicitudes por un periodo de un año.
Los/as presentes acuerda por unanimidad contestar afirmativamente a la solicitud de Doña Estibaliz Albizu y solicitarle que los informes mensuales sean entregados al o el sustituto de Don José Manuel Rodríguez cuando se produzca dicha sustitución. o en su defecto a la Junta

Doña Garazi Arrizabalaga informa que aprovechando la realización de las obras para garantizar la accesibilidad y seguridad en el Museo se va a producir una reestructuración de las plantas expositivas. Invita a los/as presentes a que aporten sus sugerencias, dudas, recomendaciones para la próxima Junta.
Se acuerda que Doña Inés Irigoras envie vía e-mail el informe museográfico presentado por Doña Garazi Arrizabalaga

bidaltzea adosten da.
Garazi Arrizabalaga andereak urtarrilaren 25ean izango den Museoaren irekiera ekitaldira gonbidatzen ditu bertaratutakoak

Doña Garazi Arrizabalaga aprovecha la ocasión para invitar a los/as presentes al acto de inaugauración del Museo para el día 25 de enero

**BOST.- OSOKO BILKURARAKO GAIAK**

Ez dago

**CINCO.- ASUNTOS PARA PLENO**

No hay

**SEI.- GAI ORDENETIK KANPOKO GAIEN AZTERKETA**

Ez dago

**SEIS.- ASUNTOS A CONSIDERAR FUERA DEL ORDEN DEL DIA**

No hay

**ZAZPI.- GALDE ESKAKIZUNAK**

Mª Soledad Juaristi andereak ondorengoa galdetzen du:

- Zergatik ezin dira Bibliotekako gela batzuk erreserbatu?
- Azterketa garaiko ordutegia indarrean dagoenean, igandetan Biblioteka zabalik egonik, zergatik ezin da prentsa irakurtzera joan?
- Igandetan prentsa erosten al da?

Jon Andoni del Amo jaunak ondorengoa galdetzen du:

- Liburuak utzi edo hartzeko tokirik egokitu al da?

Inés Irigoras andereak galdera hauek bibliotekako arduradunari helaraztea eta erantzuna e-mail bidez bidaltzea adosten da.
Jorge Varela jaunak galdetzen du ea nor den Kurutzesantu museoko alokairuak kudeatzeko arduraduna.
Mª José Balier andereak erantzuten dio Garazi Arrizabalaga anderea dela horren arduraduna.
Jorge Varela jaunak galdetzen du ea zeintzuk diren Astarloako gune ezberdinak alokatzeko irizpideak.

**SIETE.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Mª Soledad Juaristi pregunta:

- ¿Por qué no se pueden reservar algunas salas de la biblioteca?
- , ¿ Por qué no se puede ir a leer la prensa los domingos cuando está abierta la biblioteca con el horario especial por exámenes?,
- ¿Se compra prensa los fines de semana?:

Jon Andoni del Amo pregunta:

- ¿Se ha habilitado algún espacio donde se pueda dejar y coger libros?:

Se acuerda que Doña Inés nés Irigora se encargue de trasladar las preguntas a la responsable de la Biblioteca y enviar la contestación vía e-mail
Don Jorge Varela pregunta quién es el o la responsable de gestionar los alquileres del museo Kurutzesantu. Doña Mª José Balier le responde que es Doña Garazi Arizabalaga
Don Jorge Valera pregunta cuáles son los criterios para acceder al alquiler de los diferente espacios de Astarloa.
Doña Mª José Balier le responde que el criterio aprobado por la Junta es de que los actos que se vayan a realizar estén relacionados con la cultura

Mª José Balier andereak erantzuten dio Batzordeak onartutako irizpidea, bertan burutuko diren ekintzak kulturarekin erlazionatuta egotea dela.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, Udaleko Idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2018ko otsaila 13**· 13 de febrero de 2018

**LEHENDAKARIA** · Presidenta

Maria José Balier Orobio-Urrutia (EAJ-PNV)

**BATZARKIDEAK** · Asistentes

Iker Oceja Sobrón(EAJ/PNV)
Mª Soledad Juaristi Alberdi (EH Bildu)
Jon Andoni del Amo Castro (EH Bildu)
Jorge Varela Dorrio (SQ-2D)
Mauricio Garcia Martin (PSE-EE (PSOE)
Francisco Garate Mintegui (PP)

**BERTARATU EZ DIRENAK** · Justifica ausencia

**KUDEATZAILE** Gerente
Xabier Egaña

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Garazi Arrizabalaga, responsable del Museo

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión

Ramón Sorarrain Tolosa

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**· Actuando por delegación de éste:

Inés Irigoras Ordorika

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Udaletxea/Ayuntamiento |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 17:30 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertzen dira:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- AURREKO AKTA-ZIRRIBORROEN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARPENA**

2018ko urtarrilaren 16ko akta irakurri ondoren, aho batez, ontzat ematen da

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENI BURUZKO KONTU EMATEA**

Presidenteak ondorengo ebazpenen berri ematen du:

- MC07/17 aurrekontu aldaketaren (habilitazioa) onarpen ebazpena 17/12/31 datarekin

Xabier Egaña jauna bilerara batzen da. Mª José Balier andereak gainontzekoei erakunde autonomoen kudeatzaile bezala aurkezten die, José Manuel Rodríguez jaunaren ordezko bezala datorrena, azken hau beste zerbitzu batzuekin lanpetuta baitago.

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

Mª José Balier andereak bertaratutakoei galdetzen die ea kudeaketa txostenari buruz zalantza, galdera edo proposamenik duten.
Bertaratutako guztiek ados daudela adierazten dute.
Jon Andoni del Amo jaunak Bibliotekari teknologia berrien aplikaziorako diru-laguntzak ematea ukatu izanari buruz galdetzen du. Inés Irigoras andereak erantzuten dio Eusko Jaurlaritzak subentzio bidez eskatutako ordenagailu erosketaren justifikazioa eskatu ziela subentzio honen kontzezioa jakinarazi aurretik. Bibliotekak hau ez zekienez gastua burutu barik

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta de la sesión celebrada el día 16 de enero de 2018

**DOS.- CUENTA DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de aprobación de la modificación presupuestaria (Habilitación) MC07/17 con fecha 31/12/17

Se incorpora a la sesión Don xabier Egaña. Doña Mª José Balier le presenta al resto de los/as presentes como Gerente de los Organismos Autónomos, sustituyendo a Don José Manuel Rodríguez que se encuentra en situación de comisión de servicios

**TRES.- INFORME DE GESTION**

Doña Mª José Balier pregunta a los/as presentes si tienen alguna duda, pregunta, sugerencia que hacer respecto al informe de gestión.
Todos/as presentes manifietan su conformidad con el informe.
Don Jon Andoni del Amo pregunta sobre la renuncia que se ha hecho a la concesión de la subvención para nuevas tecnologías a la Biblioteca. Doña Inés Irigoras le responde que el Gobierno Vasco les solicitó la justificación de la compra de los ordenadores que habían pedido por medio de la subvención antes de haberles comunicado la concesión de dicha subvención. La Biblioteca no había realizado el gasto al desconocer ese dato ya que como en años

zeukan, izan ere, aurreko urteetan bezala ez da horrelako gasturik egiten Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak eman arte. Ondoren jakinarazi zieten diru laguntzaren kontzezioa baina orduruko ezinezkoa zen faktura hauek aurkeztea eta uko egin zitzaion.

**LAU.- AINTZAT HARTZEKO GAIAK:**

- **Abuztuko Museoaren irekitzea**
- **Txosten museografikorako ekarpenak**

Garazi Arrizabalaga andereak abuztu goizetan Museoa irekitzea zergatik den komenigarria azaltzen du:

- Turismo sailetik urteetan zehar eskatu izan da Museoaren irekiera abuztuan zehar Durango hurbiltzen diren turistek ez baitute aukerarik bertara sartzeko itxita baitago.
- Museoari berari ere komeni zaio irekita egotea, modu honetan erakargarriagoa baita erakusketak egin nahi dituzten artistentzako, eta gaineratzen du goizez soilik irekitzerakoan ez duela inolako kostu ekonomikorik.

Bertaratutakoek 2018ko proposamena onartzea eta emaitzak abuztuaren ondoren aztertzea adosten dute.

Batzartutakoek ez diote ekarpenik egiten aurkezturiko txosten museografikoari. Mª José Balier andereak Garazi Arrizabalaga andereari historia aretoari buruz galdetzen dio. Garazi Arrizabalaga andereak erantzuten du museoan

anteriores no se realiza el gasto en caso de que el Gobierno Vasco no conceda la subención. Posteriormente fue comunicada la concesión de dicha subvención, pero ya no era posible presentar facturas de compra de ordenadores del 2017 y hubo que presentar una renuncia.

**CUATRO.- ASUNTOS PARA LA TOMA EN CONSIDERACION:**

- **Apertura en agosto del Museo**
- **Aportaciones al informe museográfico**

Doña Garazi Arrizabalaga explica las razones por las que merecería la pena abrir el Museo durante las mañanas en el mes de agosto:

- desde el área de Turismo se lleva solicitando durante años la apertura del Museo durante el mes de agosto ya que al turismo que se acerca hasta Durango no se le ha podido dirigir al Museo por encontrarse cerrado
- al propio Museo le interesa que esté abierto, ya que así resulta má atractivo para que los/as artirta quieran exponer durente ese mes, y añade que al estar únicamente abierto por las mañanas no hay coste eonómico

Los/as presentes acuerdan aprobar la propuesta para el año 2018 y analizar el resultado después de agosto

Los/as presentes no hacen aportaciones al informe.museográfico Doña Mª José Balier pregunta a Doña Garazi Arrizabalaga por el montaje de la sala de historia. Doña Garazi Arrizabalaga responde que se encuentra elaborando la lista del material que hay disponible en el propio museo y del material que hay que solicitar a otras instituciones

bertan dagoen material erabilgarriaren eta beste erakunde batzuei eskatu beharreko materialaren zerrenda bat osatzen dabilela.

**BOST.- OSOKO BILKURARAKO GAIAK**

Ez dago

**SEI.- GAI ORDENETIK KANPOKO GAIEN AZTERKETA**

Ez dago

**ZAZPI.- GALDE ESKAKIZUNAK**

Mª Soledad Juaristi andereak azaltzen du aurreko batzordean egindako galderaren erantzunak ez duela asebete, izan ere, Bibliotekako aretoen erreserben kasuan, bere ustez, batzuek toki hauen erabilera desegokia egiteak ez du esan nahi orokortu egin behar denik. Mª José Balier andereak dio hurrengo bilerara Bibliotekako arduraduna joango dela eta batzarkideen galdera guztiak erantzungo dituela.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, Udaleko Idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

**CINCO.- ASUNTOS PARA PLENO**

No hay

**SEIS.- ASUNTOS A CONSIDERAR FUERA DEL ORDEN DEL DIA**

No hay

**SIETE.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Mª Soledad Juaristi informa que las contestaciones a las preguntas que realizó en la Junta anteior no le han satifecho, ya que por ejemplo en el caso de la reserva de salas en la Biblioteca ella piensa que porque haya algunas personas que hagan mal uso de las salas no se debería de generalizar. Doña Mª José Balier interviene para comunicar que a la próxima reunión acudirá la responsable de la Biblioteca y contestará a todas las preguntas de los/as presentes

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2018ko apirila 17**· 17 de abril de 2018

**LEHENDAKARIA** · Presidenta
Maria José Balier Orobio-Urrutia (EAJ-PNV)

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Iker Oceja Sobrón(EAJ/PNV)
Mª Soledad Juaristi Alberdi (EH Bildu)
Jon Andoni del Amo Castro (EH Bildu)
Jorge Varela Dorrio (SQ-2D)
Mauricio Garcia Martin (PSE-EE (PSOE)
Francisco Garate Mintegui (PP)

**BERTARATU EZ DIRENAK** · Justifica ausencia

**KUDEATZAILE** Gerente
Xabier Egaña

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Estibaliz Albizu, responsable de la Biblioteca

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Ramón Sorarrain Tolosa

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**· Actuando por delegación de éste:
Inés Irigoras Ordorika

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Udaletxea/Ayuntamiento |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 18:00 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertzen dira:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- AURREKO AKTA-ZIRRIBORROEN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARPENA**

2018ko otsailaren 13ko akta irakurri ondoren, aho batez, ontzat ematen da

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta de la sesión celebrada el día 13 de febrero de 2018

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENI BURUZKO KONTU EMATEA**

Presidenteak ondorengo ebazpenen berri ematen du:

- Estibaliz Albizu anderea "Vamos a buscar un tesoro" ikastarora joan ahal izateko onarpen ebazpena 18/01/25 datarekin
- Urtarrileko nominaren onarpen ebazpena 18/01/31 datarekin
- Hurrengo ordainketaren onarpen ebazpena:
    - Posta kutxatila
- 2016 urteko emaitzen baliogabetze ebazpena 18/02/16 datarekin
- 2018/1-2 ordainketa agirien zerrendaren onarpen ebazpena 18/02/28 datarekin
- Otsaileko nominaren onarpen ebazpena 18/02/28 datarekin
- Hurrengo ordainketen onarpen ebazpena:
    - Bibliotekaren iragarkia facebook-en
    - Museorako ura
- Soberakinak gaineratzeko onarpen ebazpena 18/03/05 datarekin

**DOS.- CUENTA DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de autorización a la concurrencia al curso "Vamos a buscar un tesoro" a Doña Estibaliz Albizu con fecha 25/01/18
- Reslución de aprobación de la nómina del mes de enero con fecha 31/01/18
- Resolución de aprobación de los pagos:
    - Apartado de correos
- Resolución de anulación d ela resulta del año 2016 con fecha 16/02/18
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 1-2/2018 con fecha 28/02/18
- Resolución de aprobación de la nómina del mes de febrero con fecha 28/02/18
- Resolución de aprobación de los pagos:
    - Publicidad de la Biblioteca en facebook
    - Agua para el Museo
- Resolución de probación de incorporación de remanente con fecha 05/03/18

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

Mª José Balier andereak bertaratutakoei

**TRES.- INFORME DE GESTION**

Doña Mª José Balier pregunta a los/as presentes si

galdetzen die ea kudeaketa txostenari buruz zalantza, galdera edo proposamenik duten. Bertaratutako guztiek ados daudela adierazten dute.

**LAU.- AINTZAT HARTZEKO GAIAK:**

- **Bibliotekari buruzko galdera desberdinetarako erantzuna**
- **Museoko galdarako tutuaren arazorako konponbideak**

Mª Soledad Juaristi andereak galdetzen du ea posible den Bibliotekako gelak erreserbatzea. Estibaliz Albizu andereak erantzuten du gaur egun ezin dela soilik izena emanez gelak erreserbatu, lehen egin zitekeen bezala. Orain eskaera agiri espezifiko bat bete behar da, zertarako erreserbatu nahi den ongi adieraziz.

Araudiaren aldaketa hau, gela hauetan eskola partikularrak ematen zirela ikusi delako izan da.

Mª Soledad Juaristi andereak galdetzen du ea nola ezberdintzen den eskola partikularrak ematen dituen pertsona bat beste bati laguntzen dabilen pertsona batetik. Xabier Egaña jaunak erantzuten du senak berak argi uzten duela nor dabilen laguntzen eta nor dabilen merkatal ekintza bat burutzen.

Estibaliz Albizu andereak adierazten du umeentzako gelan ere eskola partikularrak ematen direla ikusi dutela, eta hau ekiditeko kartelak jarri dira gela horretan ezin dela eskolarik eman helburu lukratiboekin esanez.

Ea zergatik ezin den hemeroteka erabili azterketa garaian Biblioteka zabalik dagoenean galderari, Estibaliz Albizu andereak erantzuten du Biblioteka zabaltzen duen pertsona egun horietan bakarrik

tienen alguna duda, pregunta, sugerencia que hacer respecto al informe de gestión.

Todos/as presentes manifiestan su conformidad con el informe.

**CUATRO.- ASUNTOS PARA LA TOMA EN CONSIDERACION:**

- **Contestación a diversas preguntas sobre la Biblioteca**
- **Soluciones al problema del tubo de la caldera del Museo**

Doña Mª Soledad Juaristi pregunta si es posible reservar salas en la Biblioteca. Doña Estibaliz Albizu contesta que al día de hoy no se pueden reservar salas como se hacía con anterioridad, dando el nombre únicamente. Ahora hay que realizar una solicitud muy específica y explicativa de para qué se quiere utilizar la sala. Este cambio en la normativa de uso de las salas ha sido consecuencia de la detección de la impartición de clases particulares dentro de las salas.

Doña Mª Soledad Juaristi pregunta cómo se distingue la persona que está dando particulares de la persona que está ayudando a otra. Don Xabier Egaña contesta que se utiliza el sentido común para distinguir la persona que está ayudando de la que está haciendo un acto mercantil.

Doña Estibaliz Albizu informa de que también se ha detectado que se están impartiendo clases particulares en la sala infantil, y para evitarlo se han colocados carteles en los que se indican que no se pueden dar clases con fines lucrativos.

A la pregunta de por qué no se puede utilizar la hemeroteca los fines de semana que la Biblioteca está abierta en épocas de exámenes, Doña Estibaliz Albizu contesta que la persona que abre esos fines de semana está sola y no puede atender ni controlar ningún espacio más, si se quiere dar algún servicio más habría que contratar más personal y eso es una decisión política.

A la pregunta sobre la posibilidad de disponer de un txoko en la Biblioteca para poder dejar y coger libros , Doña Estibaliz Albizu responde que

egon ohi dela eta ezin duela beste espaziorik kontrolatu. Beste zerbitzurik eman nahi bada beste pertsona bat kontratatu beharko litzateke eta hori erabaki politiko bat da.
Bibliotekan txoko bat prestatzea liburuak utzi eta hartzeko proposamenari Estibaliz Albizu andereak erantzuten dio aukera ezberdinak aztertzen dabiltzala eskaera honi irtenbidea aurkitzeko, baina Biblioteka barruan honetarako espazio bat sortzea ezinezkotzat jotzen du.
Estibaliz Albizu andereak azaltzen du aurten Book Trailer ikastaroaren sari banaketa lekuz aldatuko dela eta Bibliotekan bertan egingo dela. Estibaliz Albizu andereak batzartutako guztiei gonbidapena bidaltzea adosten da.
Xabier Egaña jaunak azaltzen du Museoko lehen solairuko zorua altxatzen hasi dela. Honen azalpena ondorengoa da: Galdarako tutua solairu horretan bukatzen dela kanpora irten beharrean eta orain arte ez da inor horretaz konturatu lehen solairu horretan komunak zeudelako eta harlauzari ez ziolako eragiten baina orain egurra jarri denez, beroaren eraginez altxatzen hasi da. Berak ahalik eta lasterren konponduko luke ez dadin arazoa gehiago zabaldu.
Jon Andoni del Amo jaunak eta Mª Soledad Juaristi andereak galdetzen dute ea nola den posible inor ez konturatzea galdarako tutuak ez zuela kanporainoko irteerarik eta ea ez ziren pasa beharreko errebisioak pasatzen.
Jorge Varelak galdetzen du ea eraikinak IEE-a gainditu zuen.
Xabier Egaña jaunak dio aparejadoreari galdeko diola berak ez baitaki erantzuna.

**BOST.- OSOKO BILKURARAKO GAIAK**

está estudiando diferentes alternativas para dar una solución a esta petición, pero que dentro de la Biblioteca disponer de un espacio para ello lo ve inviable.
Doña Estibaliz Albizu informa de que este año la entrega de premios del taller de BookTrailer cambia de lugar, y se hará en la propia Biblioteka
Se acuerda que Doña Estibaliz Albizu envíe una invitación al acto a todos/as los/as presentes.

Don Xabier Egaña informa que el suelo de la primera planta del Museo se ha comenzado a levantar, que la explicación es que la chimenea de la caldera de gas terminaba en ese piso en vez de salir al exterior, que hasta ahora nadie se había percatado de ello porque en ese primer piso estaban los aseos y al azulejo no le perjudicaba, pero al derribar los aseos y poner ahora madera, ésta con el calor se ha comenzado a levantar y que él es partidario de atajar con urgencia el problema para que no se extienda más.
Don Joan Andoni del Amo y Mª Soledad Juaristi preguntan cómo es posible que nadie se haya percatado de que la chimenea no tenía salida al exterior y si no se pasaba las revisiones pertinentes.
Don Jorge Varela pregunta si el edificio había pasado la ITE.
Don Xabier Egaña se compromete a preguntar a la aparejadora sobre ello ya que él lo desconoce.

**CINCO.- ASUNTOS PARA PLENO**

Ez dago

No hay

**SEI.- GAI ORDENETIK KANPOKO GAIEN AZTERKETA**

Ez dago

**SEIS.- ASUNTOS A CONSIDERAR FUERA DEL ORDEN DEL DIA**

No hay

**ZAZPI.- GALDE ESKAKIZUNAK**

Ez dago

**SIETE.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No Hay

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, Udaleko Idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2018ko maitza 15**· 15 de mayo de 2018

**LEHENDAKARIA** · Presidenta
Maria José Balier Orobio-Urrutia (EAJ-PNV)

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Iker Oceja Sobrón(EAJ/PNV)
Mª Soledad Juaristi Alberdi (EH Bildu)
Jon Andoni del Amo Castro (EH Bildu)
Jorge Varela Dorrio (SQ-2D)
Francisco Garate Mintegui (PP)

**BERTARATU EZ DIRENAK** · Justifica ausencia
Mauricio Garcia Martin (PSE-EE (PSOE)

**KUDEATZAILE** Gerente
Xabier Egaña

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola, responsable de SAKG

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Ramón Sorarrain Tolosa

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**· Actuando por delegación de éste:
Inés Irigoras Ordorika

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Udaletxea/Ayuntamiento |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 18:00 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertzen dira:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- AURREKO AKTA-ZIRRIBORROEN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARPENA**

Irakurri ondoren mahai gainean utzi zen Estibaliz Albizu andereari galdetu arte ea jasotakoa zuzena den edo erantzunak falta diren Mª Soledad Juaristi andereak dioen bezala

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue dejada sobre la mesa hasta que se consulte a Doña Eestibaliz Albizu si lo recogido es correcto o si faltan respuestas tal y como plantea Doña Mª Soledad Juaristi

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENI BURUZKO KONTU EMATEA**

Presidenteak ondorengo ebazpenen berri ematen du:

- Soberakinen erastearen onarpen ebazpena 18/04/26 datarekin
- 3/2018 ordainagiri zerrendaren onarpen ebazpena 18/03/31 datarekin
- Martxoko nominaren onarpen ebazpena 18/03/31 datarekin
- Maider Larrañagaren balorazioaren berrikustearen emaitzaren nominaren onarpen ebazpena 18/03/31 datarekin
- Ondorengo ordainketen onarpen ebazpena:
    - SAKG arduradunaren izen ematea Kalitate Biltzarrean
    - Bibliotekako arduradunaren izen ematea Kalitate Biltzarrean
    - Museoko arduradunaren izen ematea Kalitate Biltzarrean
    - Museoko iragarkiak Facebooken
    - DVD kaxak Museorako
    - SAGK-rentzako ura
    - Chapito konpainiaren afaria
    - Toplaklown-eko

**DOS.- CUENTA DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de probación de incorporación de remanente con fecha 26/04/18
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 3/2018 con fecha 31/03/18
- Resolución de aprobación de la nómina del mes de marzo con fecha 31/03/18
- Resolución de aprobación de la nómina del resultado de la revisión de la valoración de Maider Larrañaga con fecha 31/03/18
- Resolución de aprobación de los pagos:
    - Inscripción a Congreso de Calidad de la responsable del SAKG
    - Inscripción a Congreso de Calidad de la responsable de la Biblioteca
    - Inscirpción a Congreso de Calidad de la responsable del Museo
    - Publicidad en facebook del Museo
    - Cajas para DVD para la Biblioteca
    - Agua para SAKG
    - Cena de la compañía Chapito
    - Material para cursos en Topaklown
    - Encuadernación para SAKG

ikastaroentzako materiala
- SAKGarentzako enkoadernazioa

- 18/05/03 datarekin Lasuen Contrucciones-en kontratazioa Museoko harresia ken zezaten herritarrentzako sarrera zabaltzeko onarpen ebazpena
- 18/03/05 datarekin, Decoraciones Rementeria-ren kontratazioa igeltsu plakak ekarri eta jartzeko aurretik dagoen horman.

Mª Soledad Juaristi andereak SAKG-an egiten diren iragarkien ordainketen gaineko informazioa jasotzea eskatzen du. Arantza Arrazola andereak azaltzen du SAKG-aren iragarkien ordainketak urteroko biltzarrean azaltzen direla, KMON eta Mugalari-rentzako ordainketak izan ezik, hauek proiektuka ordaintzen baitira

- Resolución de contratación de Lasuen Construcciones para la eliminación de muros y cierre para abrir la entrada del Museo a la ciudadanía, con fecha 03/05/18
- Resolución de contratación de Decoraciones Rementería para el suministro y colocación de placas de escayola laminado sobre la pared existente, con fecha 03/05/18

Doña Mª Soledad Juaristi solicita se le informe sobre los pagos de publicidad que se realizan en SAKG. Doña Arantza Arrazola informa de que el gasto de publicidad en SAKG se explica anualmente en Junta, que suelen ser gastos mensuales, excepto el pago a KMON y Mugalari que la facturación se realiza por proyectos

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

Mª José Balier andereak bertaratutakoei galdetzen die ea kudeaketa txostenari buruz zalantza, galdera edo proposamenik duten. Bertaratutako guztiek ados daudela adierazten dute.

**TRES.- INFORME DE GESTION**

Doña Mª José Balier pregunta a los/as presentes si tienen alguna duda, pregunta, sugerencia que hacer respecto al informe de gestión.
Todos/as presentes manifiestan su conformidad con el informe.

**LAU.- AINTZAT HARTZEKO GAIAK:**

- **Topaklownaren balioespena**
- **Udarako SAKGek egindako programazioa**

Arantza Arrazola andereak Topaklown-en balorazio oso positiboa egiten du, bere ustez oso proiektu ona da, eta irudi ona duena gainera, baina planteamendu berri bat behar duela dio, bi

**CUATRO.- ASUNTOS PARA LA TOMA EN CONSIDERACION:**

- **Valoración del Topaklown**
- **programación para el verano de SAKG**

Doña Arantza Arrazola hace una valoración muy positiva del Topaklown, considera que es un buen proyecto, y con buena imagen, pero que necesita un replanteamiento ya que se realiza entre dos personas y es insuficiente. En cuanto al coste informa que con las cuotas de los/as alumnos/as se cubre el coste de los/as profesores/as, y que también se recibe una

pertsonen artean burutzen baita eta ez da nahikoa. Kostuaren gainean azaltzen du, ikasleen ordainketen bidez irakasleen gastuak ordaintzen direla eta gainera Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat jasotzen dela 20.000 euro ingurukoa. Guzti hau kontutan hartuta SAKGarentzat 20.000 euroko kostua izan ohi da.

Udako programazioa Plateruenarekin batera burutzen ari da aurrekontuak ez baitu kaleko bederatzi ikuskizunak egiteko ematen. Uda honetako programazioan Plateruenak lau kontzertu antolatuko ditu eta SAKG-ak hiru dantza/antzerki emanaldi. Adierazten du Benita Uibarrena parkean zinema emanaldi bat antolatu nahiko lukeela, zehazki "Handia" filma eskaintzeko, baina aurrekontua aztertu behar du erabaki bat hartu baino lehen.

**BOST.- OSOKO BILKURARAKO GAIAK**

Ez dago

**SEI.- GAI ORDENETIK KANPOKO GAIEN AZTERKETA**

Ez dago

**ZAZPI.- GALDE ESKAKIZUNAK**

Jon Andoni del Amo jaunak ez du ulertzen Museoari buruzko IEE txostenak ontzat ematea tximiniaren instalazioa. Xabier Egaña jaunak azaltzen du IEE inspekzioa ustez oinarrizkoak diren puntu batzuen azterketan datzala, batez ere begi bistaz egiten den inspekzio bat dela eta azterketa mota horrekin oso zaila dela kearentzako irteerarik ez dagoela antzematea.
Jorge Varela jaunak dio ez duela ulertzen

subvención del Gobierno Vasco que suele oscilar alrededor de los 20.000 euros. Con todo ello el coste para SAKG suele ser de otros 20.000 euros

La programación de verano la está realizando junto a Plateruena ya que el presupuesto no le llega para realizar los nueve espectáculos de calle. En la programación de este verano, Plateruena organizará cuatro conciertos y SAKG tres espectáculos de teatro y/o danza.
Manifiesta que también le gustaría organizar una sesión de cine en el parque Benita Uribarrena, concretamente exhibir la película "Handia", pero tiene que estudiar el presupuesto para tomar una decisión

**CINCO.- ASUNTOS PARA PLENO**

No hay

**SEIS.- ASUNTOS A CONSIDERAR FUERA DEL ORDEN DEL DIA**

No hay

**SIETE.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Don Jon Andoni del Amo no entiende como el informe de la ITE del Museo diese por buena la instalación de la chimenea. Don Xabier Egaña indica que la inspección de la ITE se trata del exámen de una serie de puntos que se creen básicos, sobretodo es una inspección visual, y con esa inspección es muy difícil que detectasen que no había salida de humos de la caldera.
Don Jorge Varela dice no entender que se haga la

tximiniaren inspekzio bat egitea eta ez ikustea tximiniarik ez dagoela, eta uste du IEE inspekzioa egin zuen pertsonaren arduren urraketa bat dagoela.
Mª Jose Balier andereak proposatzen du lan hau egin zuen pertsonak idatzi bat aurkez dezala gertatutakoa azalduz.

inspección de la chimenea y no detecten que no hay chimenea y que piensa que es una dejación de funciones por parte de la persona que realizó la inspección de la ITE.
Doña Mª José Balier propone que la persona que realizó el trabajo presenten un escrito explicando lo sucedido para que en el informe no figurase la no existencia de chimenea en el Museo

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, Udaleko Idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

**2018ko ekaina 12**· 12 de junio de 2018

**LEHENDAKARIA** · Presidenta
Maria José Balier Orobio-Urrutia (EAJ-PNV)

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Iker Oceja Sobrón(EAJ/PNV)
Jon Andoni del Amo Castro (EH Bildu)
Jorge Varela Dorrio (SQ-2D)
Mauricio Garcia Martin (PSE-EE (PSOE)
Francisco Garate Mintegui (PP)

**BERTARATU EZ DIRENAK** · Justifica ausencia
Mª Soledad Juaristi Alberdi (EH Bildu)

**KUDEATZAILE** Gerente
Xabier Egaña

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Garazi Arrizabalaga, responsable del Museo

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Ramón Sorarrain Tolosa

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**· Actuando por delegación de éste:
Inés Irigoras Ordorika

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Udaletxea/Ayuntamiento |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 18:00 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertzen dira:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- AURREKO AKTA-ZIRRIBORROEN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARPENA**

Irakurriak izan ondoren guztien adostasunarekin izan ziren onartuak Apirilaren 17ko eta Maiatzaren 15eko aktak

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENI BURUZKO KONTU EMATEA**

Presidenteak ondorengo ebazpenen berri ematen du:

- Chapito-Colect Cultuiral e Recreat. Sta Catalina konpainiaren kontratazioko onarpen ebazpena "Electra" lanaren antzezpenerako, 18/03/01 datarekin
- 18/04/30 datarekin 4/2018 ordainagiri zerrendaren onarpen ebazpena
- 18/04/30 datarekin Apirileko nominaren onarpen ebazpena
- 18/04/30 datarekin 2017ko nominen atzerapenen onarpen ebazpena (1% eta balorazioa)
- Hurrengo ordainketen onarpen ebazpena:
    - Bibliotekako iragarkia Facebook-en
    - SAGK-ko ikuskizuna
    - Víctor Arrizabalagaren erakusketarako argazkiak
    - Museorako kartulina
    - Kartelen inprimaketa
- 18/05/09 datarekin Garazi Arrizabalaga anderea "Museografías. Modos de ver el Arte" ikastarora joan ahal izateko baimena ekainaren 27,28 eta 29 egunetan

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leídas fueron aprobadas por unanimidad las actas del 17 de abril y 15 de mayoi

**DOS.- CUENTA DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de contratación de la compañía Chapito-Colect Cultuiral e Recreat. Sta Catalina para la representación de la obra "Electra", con fecha 01/03/18
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 4/2018 con fecha 30/04/18
- Resolución de aprobación de la nómina del mes de abril con fecha 30/04/18
- Resolución de aprobación de la nómina de los atrasos del 2017 (1% y valoración) con fecha 30/04/18
- Resolución de aprobación de los pagos:
    - Publicidad de la Biblioteca en facebook
    - Espectáculo en SAKG
    - Fotografías para exposición de Víctor Arrizabalaga
    - Cartulina para el Museo
    - Impresión de carteles
- Resolución de autorización a Doña Garazi Arrizabalaga para acudir al curso "Museografías. Modos de ver el Arte" los días 27, 28 y 29 de junio, con fecha 09/05/18

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

Mª José Balier andereak bertaratutakoei galdetzen die ea kudeaketa txostenari buruz zalantza, galdera edo proposamenik duten.
Bertaratutako guztiek ados daudela adierazten dute.

**LAU.- AINTZAT HARTZEKO GAIAK:**

- **Museoko historia aretoaren proiektuaren gaurko egoera**

Garazi Arrizabalaga andereak, Durangoko institutuak bere irekieraren 50. urtemuga dela eta editatu duen eta Museoaren diru-laguntza jaso duen liburua banatzen du.
Garazi Arrizabalaga andereak Museoaren hurrengo erakusketarako gonbidapenak banatzen ditu, “El editor enmascarado” izena duena
Garazi Arrizabalaga andereak Museoko Historia gelarako proiektuaren egoera azaltzen du: Oraindik zehaztu gabe dagoena ondorengoa da: Aro Modernoa, burdinolak, pertsonaia ospetsuak, industria Durangaldean eta errepublika eta gerra zibilari buruzko dokumentazioa erakutsiko den gelaren birmoldaketa; Gainera, Museoak gordetzen dituen ondare arkeologikoen inguruan Diputazioarekin izandako arazoari buruz azalpenak ematen ditu eta auzia Museoaren alde konpondu dela dio
Garazi Arrizabalaga andereak, Mª José Balier presidenteak horrela eskatuta, DK-rekin eta Bibliotekarekin batera udako igerilekuetan , “Un naufragio en la piscina” izenekoa eta uztailean zehar burutuko dena, landuko den ekintza zertan

**TRES.- INFORME DE GESTION**

Doña Mª José Balier pregunta a los/as presentes si tienen alguna duda, pregunta, sugerencia que hacer respecto al informe de gestión.
Todos/as presentes manifiestan su conformidad con el informe.

**CUATRO.- ASUNTOS PARA LA TOMA EN CONSIDERACION:**

- **Estado actual del proyecto de la sala de Historia del Museo**

Doña Garazi Arrizabalaga reparte el libro que ha editado el Instituto de Durango con motivo de la celebración de los 50 años de su inauguración, y en el que ha colaborado el Museo con aportación económica.
Doña Garazi Arrizabalaga reparte las invitaciones para la inauguración de la próxima exposición en el Museo "El editor enmascarado"
Doña Garazi Arrizabalaga explica el estado actual del proyecto de la sala de Historia del Museo: informa que lo que queda por concretar es: la Edad Moderna, las ferrerías, personajes ilustres, la industria en el duranguesado y la remodelación de la sala donde se expondrá la documentación sobre la república y la guerra civil; también informa del problema surgido con la Diputación sobre la propiedad de los resto arqueológicos que custodia el Museo y que finalmente se ha resuelto positivamente para el Museo
Doña Garazi Arrizabalaga, a petición de la presidenta, Doña Mª José Balier , explica en qué consiste la nueva actividad que se va a desarrollar conjuntamente con DK y la Biblioteca en las piscinas de verano, "Un naufragio en tu piscina"  durante el mes de julio. Es un taller de arqueología subacuática dirigido al público de entre 8 y 14 años.
Doña Garazi Arrizabalaga informa que este año no se va a celebrar "Begira", y para ese mes Don Miguel Zugaza ha ofrecido una exposición de alto nivel y que casi le sale gratis al Museo.

datzan azaltzen du. 8 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzendutako urpeko arkeologia tailer bat da.
Garazi Arrizabalaga andereak dio aurten ez dela "Begira" ospatuko eta hile horretarako Miguel de Zugazak maila altuko erakusketa bat eskaini du, Museoari ia dohain irtengo zaiona.

**BOST.- OSOKO BILKURARAKO GAIAK**
Ez dago

**SEI.- GAI ORDENETIK KANPOKO GAIEN AZTERKETA**
Ez dago

**ZAZPI.- GALDE ESKAKIZUNAK**
Jon Andoni del Amo jaunak eta Jorge Varela jaunak galdetzen dute ea zergatik Bibliotekako batzar gelak ezin diren erabili asteburuetan, azterketa garaia den honetan.
Estibaliz Albizu andereak azaltzen du bere momentuan azaldu zela, asteburu horietan pertsona bakarra egoten dela Biblioteka zaintzen eta horrenbestez ezin dituela gune guztiak atenditu.
Jon Andoni del Amo jaunak eta Jorge Varela jaunak gela hauek eta hemeroteka, azterketa garaiko asteburuetan zabalik egoteak ze kostu suposatuko lukeen aurkeztea eskatzen dute.
Jon Andoni del Amo jaunak galdetzen du ea zergatik ez den aurkeztu Museoko galdararen eta tximiniaren instalazioa ontzat eman zuen eta Museoaren EIT a pasatu zuen arkitektoari eskaturiko txostena.
Xabier Egaña jaunak erantzuten du Patricia Etxenagusia anderea oporretan egon dela, ondoren bajan eta honenbestez ez zaiola txostena eskatu. Berriz eskatuko duela eta hurrengo batzarrean

**CINCO.- ASUNTOS PARA PLENO**
No hay

**SEIS.- ASUNTOS A CONSIDERAR FUERA DEL ORDEN DEL DIA**
No hay

**SIETE.- RUEGOS Y PREGUNTAS**
